



PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

«PROACTIVANET INBENTARIO-LIZENTZIAK HORNITZEA»

1.- Kontratuaren xedea.

ProactivaNet inbentario-lizentzien hornidura eta mantentze-lanak kontratatzea.

2.- Proiektuaren irismena.

Agiri honen xedea da ProactivaNeten «Discovery & Gestión de Activos y Proveedores» (*on premise* instalazioarekin) erabiltzeko lizentzien horniduraren eta mantentze-lanen preskripzio teknikoak zehaztea. 2025ean eta 2026an erakundearen software- eta hardware-aktiboen inbentario automatizatuak egiteko dira lizentzia horiek.

Oraingo 900 lizentziak berritu nahi dira hiru urteko eperako, eta beste 100 lizentzia gehitu horiei, inbentarioan sartu beharreko ekipoen kopurua handitu dela eta; beraz, hau izango da lizentzien kopurua:

Produktua	Lizentzia kopurua
«Discovery & Gestión de Activos y Proveedores», <i>on premise</i> instalazioarekin	1.000

Oraingo lizentzien mantentze-zerbitzua 2025eko irailaren 1ean bukatuko da.

Zerbitzuak barne hartuko ditu aurretik zehaztutako lizentzia guztien mantentze-lanak kontratuaren hiru urteko indarraldian.

3.- Proiektuaren beste alderdi tekniko batzuk.

BBUPek hornitutako ekipamenduaren eta lizentzien jabe gisa agertu behar du, eta ekipamendu horren fabrikatzailearen datu-baseetan jasota geratu beharko du kondizio horrek.

Bilbo, 2025eko martxoaren 14a

Kontratuaren kudeatzailea
David Alonso Villafáfila

Informatikako zuzendariordea
Jose Luis Unzueta